HAL
open science

Euskal artikuluak bultza ditzakeen interpretazioez

Urtzi Etxeberria

To cite this version:

Urtzi Etxeberria. Euskal artikuluak bultza ditzakeen interpretazioez. ASJU (Donostia) Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" , 2009, 43, 1-2, pp.315-334. artxibo-00699177

HAL Id: artxibo-00699177

https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00699177v1

Submitted on 19 May 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskal artikuluak bultza ditzakeen interpretazioez*

Urtzi Etxeberria (IKER-CNRS)

This paper proposes a novel analysis for the Basque definite determiner [-a] where it is argued, in opposition to other scholars (cf. Artiagoitia 2002, 2006 where [-a] is argued to be a number marker when it gets the existential narrow scope interpretation), that the Basque definite determiner (despite its various interpretations) is just that, a definite determiner. Moreover, based on the behaviour of this element, this paper provides extra evidence in favour of the Neocarlsonian approach (cf. Chierchia 1998b, Dayal 2004) where the existential interpretation of bare nouns (BN) is shown to be dependent on the kind-level reading. This evidence should also be taken as proof against the so-called Ambiguity analysis (cf. Diesing 1992, Kratzer 1995, a.o.) or the property-based approach to BNs, (cf. McNally 1995, Laca 1996, Dobrovie-Sorin & Laca 2003) where BNs' existential interpretation is argued to be non-dependent on any other reading. Furthermore, observing the different interpretations that the D can force in Basque -referential, kind, and existential-, this language is shown to be typologically in between English and French (as argued by Etxeberria 2005, 2007).

0. Sarrera

Euskal hizkuntzalaritzan, determinazioa eztabaidagai klasiko bihurtu zaigu, nahiz eta ez den hizkuntzalari askok aztergai moduan hartu izan duen ikerketa gaia. Ikergai honen zailtasuna [-a] euskal artikuluak bete ditzakeen funtzio anitzen ondorio da. Erabilera edo funtzioa anitz hau bi eremutan ikus daiteke: (i) beraren distribuzioa sintaktikoan, (ii) bultza ditzakeen interpretazio posibleetan.

Euskal artikuluaren distribuzio sintaktikoaren ikuspuntutik begiratuta, ohar gaitezen euskarako artikuluak argumentu guztiekin nahitaez agertu behar duela esaldia gramatikala izan behar bada.[1] Halere, ez da hau [-a] artikuluaren erabilera bakarra, predikatuekin ere

* Eskerrak eman nahi nizkieke Ricardo Etxepare, Ricardo Gomez eta Joseba Lakarrari Beñat Ohiartzabalen omenaldi liburu honetarako artikulu hau idazteko gonbidapena luzatu zidatelako. Ikerketa hau ondorengo proiektuen laguntzari esker burutu ahal izan da: Eusko Jaurlaritzako GIC07/144-IT-210-07; Eusko Jaurlaritzako Hm-2008-1-10; CNRS-ko Fèderation Typologie et Universaux Linguistiques-eko FR2559 proiektua; ANR-ko TSABL (ANR-07-CORP-033) proiektua eta MCI-ko FFI2008-00240 proiektua.

[1] Determinatzaile indefinitu baten (ia) edo kuantifikatzaile ahul deitu baten (ib) (ikus Etxeberria 2005, 2008, prestatzen) presentziak ere gramatikaltasuna eman diezaioke esaldiari.

(i) a. Mutil bat berandu iritsi zen.
b. Mutil asko berandu iritsi ziren.

Lan honetan euskal artikuluan zentratuko garenez, esaten ari garena zera da: euskarak ez duela izen biluzirik onartzen argumentu posizioan. Azken baieztapen hau ez da erabat zehatza halere, zubereraz, izen biluziak erabili baitaitezke argumentu posizioan (zubereraz bakarrik ematen da fenomeno hau –garai batean erabilera hau zabalduagoa zegoela (Lapurdi alderaino) dirudien arren; ikus Gandara & Santazilia 2007–); aukera hau objektu posizioan soilik eman daiteke.

(ii) a. Bortüan ikusi dut **behi, ardi eta mando** (Coyos 1999: 232)
b. Dembora da (…) içan deçadan **diru** (Bourciez 1895; Gandara & Santazilia 2007-tik hartua)
c. **Sagar** ebatsi dü (Manterola 2006)

Lan honetan ez da erabilera hau kontutan hartuko eta izen artikulugabearen presentziak esaldiaren ezgramatikaltasuna bultzatzen duela onartuko da; ikus Etxeberria (prestatzen) analisi posible batetarako. Eskerrak Maider Bedaxagar eta Battittu Coyos-i zubererako datuekin laguntzeagatik.

agertu baitaiteke; kasu horietan partizipioaren edo izaera-mailako predikazioaren ('individual-predicate') papera betetzen du, ez dugu halere lan honetan artikuluaren erabilera hau kontutan izango eta argumentu posizioan duen erabilerara mugatuko gara (ikus besteak beste Zabala 1993, 2003, Artiagoitia 1997, Eguren 2005, 2006, Matushansky 2005 analisi posibleetarako). Beraren presentzia beharrezkoa da baita ere kuantifikatzaile sendo deituekin ('strong quantifiers' Milsark-en 1977 lanaz geroztik), non artikuluak kuantifikatzailearen dominioaren testuinguru murriztapena ageriko sintaxian gauzatzen duela argudiatu den (ikus Etxeberria 2005, 2007, 2009; Etxeberria & Giannakidou 2009).

Euskal artikulua, honek bultza ditzakeen interpretazio posibleen ikuspuntutik begiratuta berriz, normalean definitutasuna (estentsionala zein intentsionala –espezie irakurketa deitua; 'kind reading'–, ikus Etxeberria 2007, prestatzen) markatzen duela esan bagenezake ere, posible du baita ere, izen plural edo masa izenekin konbinatzen denean, irakurketa esistentziala deitua bultzatzea (ikus besteak beste Artiagoitia 2001, 2002, 2006; Etxeberria 2005, 2007, prestatzen).[2]

Lan honetan, euskal artikuluaren erabilera eta portaera aztertuta, beraren analisi berri eta berriztatzaile bat proposatzen da, non euskal artikulua (bultza ditzakeen irakurketa desberdinak gora behera) determinatzaile definitu (D) moduan tratatzen den beti. Lan honek gainera, teoria *Neocarlsoniarra* (NC) deituaren aldeko ebidentzia areagotzen du (Chierchia 1998, Dayal 2004, Zamparelli 2002a), non izen biluziek (IB) irakurketa esistentziala lortzeko aurretik espezie irakurketa lortzea beharrezkoa dutela defendatzen den. Hau Anbiguotasunaren analisiaren (Wilkinson 1991, Diesing 1992, Kratzer 1995, e.a.) edo Propietateetan oinarritzen den analisiaren (McNally 1995, Laca 1996, Dobrovie-Sorin & Laca 2003, e.a.)[3] kontrako froga moduan erabili daiteke. Azkenik, euskal artikuluak lortu ditzakeen irakurketa ezberdinak ikusirik, euskara tipologikoki ingelesaren eta frantsesaren tartean kokatzen dela erakutsiko du.

1. Artikuluaren erabilera eta bultza ditzakeen interpretazio posibleak

Euskal artikulua bakarrik ager ezin daitekeen morfema bat da; atzizki baten moduan portatzen da, eta [-a] (singularreko forman) edo [-ak] (pluraleko forman) moduan gauzatzen da.[4]

(1a) gizon-a
(1b) gizon-ak

Mendebaldeko aldaeretan pluraleko [-ak] formarekin batera hurbileko plurala ere badugu: [-ok].[5]

---

[2] Irakurketa esistentzial hau irakurketa indefinitu ere deitu genezake; halere, badaude ageriko desberdintasun batzuk euskal artikuluak (edo beste hizkuntza batzuetan izen biluziek, ingelesa edo espainola kasu) bultza dezakeen irakurketa esistentziala eta benetako indefinituek (e.g. *bat*) lortu dezaketen irakurketa esistentzialaren artean. Ikus 15. oinoharra.

[3] Lan honetan ez da propietateetan oinarritzen den analisia kontutan izango. Analisi honek aurre egin beharko liekeen arazo batzuk Chierchia (1998)-n aurki daitezke.

[4] Autore batzuren arabera, euskal artikulu plurala (-*ak*) elementu bakar baten moduan analiza daiteke (cf. Goenaga 1978, 1991, Euskaltzaindia 1993, Ticio 1996, Artiagoitia 1997, 1998, 2002, 2003, 2004, 2006, Rodriguez 2003, Trask 2003). Etxeberria (2005) lanean oinarrituz, lan honetan hartzen den bidea bestelakoa da—eta hau hartzen dugu hemen analisi zuzentzat; ikus baita ere Eguren 2006—; ikus 3.2.1 atala.

[5] Gaur egungo euskaran hurbileko singularrik ez dugun arren, testu zaharretan posible da -*ori*, -*or*, -*au* edo -*o* bezalako formak aurkitzea. Gaur egungo bizkaieran singularreko -*o hemen bert**o**n* bezalako kasuetan aurki daiteke (*hemen bert**a**n* ere erabiltzen da gaur egungo bizkaieran).

(2) gizon-ok

Onartu izan da, aurretik aipatu dugun bezala, (ikus Laka 1993, Artiagoitia 1997, 1998, 2002, besteren artean) euskaran IB-rik ezin daitekeela argumentu bezala erabili eta artikuluaren presentzia ezinbestekoa dela esaldia gramatikala izango bada (ikus 1. oinoharra).[6]

Subjektu posizioan:
(3a) Irakasle*(-a) berandu etorri zen
(3b) Irakasle*(-ak) berandu etorri ziren

Objektu posizioan:
(4a) Martxelek pilot*(-a) hartu zuen
(4b) Martxelek pilot*(-ak) hartu zituen

Argumentu posizioan IB-rik agertu ezin badaiteke euskaraz, IB-ak erabili ditzaketen hizkuntzetan IB bidez adierazi daitekeena euskaraz nola adierazi ote daitekeenaren galdera sortzen zaigu. Ingelesez eta beste hizkuntza germaniko batzutan, adibidez, izen pluralak eta masa izenak D-rik gabe erabili daitezke espezie irakurketak (5) zein irakurketa esistentzialak adierazteko (6).

(5a) Fishes appeared 390 million years ago
arrain.pl agertu.lehen milioi urte.pl dela
(5b) Silver has the atomic number 47
zilarra dauka D.sg atomiko zbkia.

(6a) Garazi has eaten olives
Garazi aux jan oliba.pl
(6b) Moles are ruining my parents' vegetable garden
sator.pl aux hondatzen nere guraso.pl.gen baratza

Fenomenora gerturatzearekin batera, euskal artikuluaren erabilera hizkuntza erromantzeetako edo ingeleseko determinatzaile definituaren erabilera baino zabalagoa dela ohar gaitezke:[7] (3) eta (4)ko ohiko interpretazio erreferentzialaz gain beste hizkuntza batzutan, hala nola espainola edo ingelesa –ez ordea frantsesa, zeinak ezin baitu IB-rik erabili koordinaziozko testuinguruetan ez bada; ikus Roodenberg 2004–, IB-ak erabiliko genituzkeen testuinguruetan ere agertzen zaigu euskal artikulua. Hasteko, euskaraz,

[6] Ohar zaitezte, euskarako [-a(k)] baiezko esaldietan erabiltzen den forma dela. Ezezko esaldietan, [-a] artikulua partitiboa den [-rik] formagatik aldatzen da (non komunztadura plurala ezin den erabili), esanahi definitua mantendu nahi ez bada behintzat (ic)-n lortuko genukeena (kasu honetan [-a(k)] erabiliko genuke).
(ia) Jonek ume-a/-ak ikus du/ditu
(ib) Jonek ez du ume-rik ikusi
(ic) Jonek ez du/ditu ume-a/-ak ikusi
Frantsesez ere antzeko zerbait gertatzen da, eta ezezko esaldietan [-rik] partitiboaren parekotzat hartu daitekeen [de] partitiboa erabiltzen da.
(iia) J'ai vu les/des enfants
(iib) J'ai ne pas vu d'enfant
Lan honetan ez dugu [-rik] partitiboa tratatuko; ikus de Rijk (1972), Ortiz de Urbina (1986), Etxepare (2003), Etxeberria (pres.).
[7] Aurrerago saiatuko gara erabilera zabal honi azalpen bat ematen. Ikus 3.2.2 atala.

artikuludun izen bat (5) adibideko bezalako espezie mailako predikatu batekin ('kind level predicates', Carlson 1977; ikus baita ere Krifka et al. 1995) konbinatzen denean, ohiko irakurketa espezifikoa (h.d. irakurketa definitu estentsionala) desagertu eta espezie irakurketa hartzen du non determinatzaile sintagma (DS) osoak izenak denotatzen duen espezieari egiten dion erreferentzia (irakurketa intentsional bat bultzatuz, zeinak mundu eta egoera posible guztietan multzoaren pluralitate handienari egiten dion erreferentzia).[8]

(7a) Dinosauru-ak aspaldi desagertu ziren.
(7b) Nitrogeno-a ugaria da gure unibertsoan.

(7)ko adibideetan, *dinosauruak* eta *nitrogenoa* DS-ak ez diote dinosauru multzo jakin bati edo nitrogeno kantitate jakin bati erreferentzia egiten, baizik eta (lehenago adierazi dugun bezala) dinosauruen espezieari eta nitrogenoaren espezieari egiten die erreferentzia.

Erabilera honetaz aparte, euskarako DS definituak (pluralak eta masa izaeradunak) objektu zuzen posizioan agertzen direnean ez dute zertan (berriro ere) nahitaez multzo zehatz bati erreferentzia egin beharrik eta (6) adibideak adierazten duen interpretazio *esistentziala* deitua lortu dezakete (ikus Carlson 1977, besteak beste). Hau da, (8)-ko adibideetan ez dugu zertan goxoki multzo jakin batez ez eta ardo kantitate jakin batez hizketan aritu beharrik.[9]

(8a) Amaiak goxoki-ak jan ditu.
(8b) Izarok ardo-a edan du.

Ohar zaitezte (8)-ko adibideetan DS objektuek ez dezaketela espezie irakurketa deitua lortu. Halere, irakurketa espezifiko definitua bai da posible (8)-ko adibideetako DS objektuentzat, hau da, espainoleko glosak eskeiniko bagenitu (8a) eta (8b) bi modutara interpreta genitzake: (8a) 'Amaia ha comido *caramelos*' edo 'Amaia ha comido *los caramelos*' bezala; eta (8b) 'Aritz ha bebido vino' edo 'Aritz ha bebido *el vino*' bezala.

Kasu hauetaz aparte, DS definitu singular batzuk ere jaso dezakete interpretazio esistentzial deitua (9)-ko adibidean erakusten dugunez. Lan honetan pasaeran baino ez dira agertuko kasu hauek espazio arrazoiak direla eta, eta ez gara erabilera honentzako analisi bat ematen saiatuko; ikus Rodriguez (2003), Etxeberria (2005, prestatzen) edo Eguren (2006) analisi posibleetarako; ikus Manterola (2006) analisi diakroniko baterako.

(9) Julenek auto-a erosi zuen.

---

[8] Hizkuntza erromantzeek ere determinatzaile definitua erabiltzen dute espezieen gaineko irakurketa adierazteko. Espainoleko adibidea bakarrik eskaintzen dut hemen.
(i) [Los peces] aparecieron hace 390 millones de años.
'Lit.: D.pl arrain.pl agertu ziren duela 390 milioi urte'

[9] Hizkuntza erromantzeek estrategia desberdinak erabiltzen dituzte euskaraz artikuludun DS-aren bitartez lortzen dugun irakurketa esistentziala lortzeko. Espainolez eta italieraz izen biluziak erabil daitezke. Frantsesez aldiz, *des/du* determinatzaile partitiboa deitua erabili behar dute (italierak ere badu determinatzaile partitibo bat). Ikus besteak beste Chierchia (1998b), Zamparelli (2000, 2002a, 2002b), Kleiber (1990), Bosveld-de Smet (1997), Heyd (2003), Bosque (1996a, 1996b), Laca (1996). Ikus 3.2.2 atala ingelesko izen biluziek, frantsesko determinatzaile partitiboek eta euskarako artikuluak bultza dezaketen irakurketa esistentzialaren analisi bateratu batetarako.

Sp.:	Juan ha bebido [café].	Fr.:	Pierre a mangé [des sucreries].
	Juan has drunk [coffee]		Pierre has eaten [of-the sweets]
	'Juan has drunk coffee'		'Pierre has eaten sweets.'

Esaldi hau ere, (8)-eko adibideak bezala, bi modutara interpreta daiteke: irakurketa posible bat Jonek auto jakin bat erosi duenekoa da; adibidez, aurreko egunean aipatu zuen autoa: Citroën Bi Zaldi bat; bigarren irakurketa berriz 'Julenek *auto bat* erosi du' perpausaren gutxi gora beherako pareko bat litzateke non ez dakigun ze autotaz ari garen (*auto bat*-en irakurketa ez-espezifikoaren pareko litzateke, beraz).

Halere, (8)-ko [izen zenbagarri+determinatzaile singular] sekuentziek (objektu zuzen posizioan) irakurketa esistentziala testuinguru jakin batzuetan lortzen dute bakarrik: testuinguru estereotipatu deituetan (9) hain zuzen ere, non jabegotasunak ere baduen zeresanik: (9)-ko adibide guztiek jabegotasunaren kutsu ageriko bat dute, hau da, behin autoa/etxea erosita, auto hori eroslearena bihurtzen da, zerbait edukitzeak ere jabegotasunarekin erlazio hertsia du, eta baita zerbait gainean eramateak ere (e.g. txapela). Bistakoa da beraz DS singularreko hauek ez dutela irakurketa esistentziala pluralek eta masa izenek lortzen duten erraztasunarekin lortzen.

(9) auto-a/etxe-a erosi, senarr-a/emazte-a eduki, txapel-a eraman, etb.

Hizkuntza erromantzeetan (espainolez, frantsesez eta errumanieraz behintzat) (9)-ko adibideetako esamoldeek adierazten dutena adierazteko IB singularrak erabiltzen dira (ikus Bosque 1996 espainoleko datuen aurkezpen zabal batetarako; ikus baita ere Dobrovie-Sorin, Bleam & Espinal 2005, Espinal & McNally 2007 analisi posibleetarako).

(10) comprar coche/casa, tener marido/mujer, llevar sombrero, etb.

Ohar gaitezen baita ere, normalean, euskaraz, objektu mailako predikatu baten objektu zuzen posizioan agertzen den [izen zenbagarri+determinatzaile singularra] sekuentzia batek irakurketa espezifikoa bakarrik lortzen duela, (9)-ko adibideetan gertatzen ez den bezala. Hau da, (11)-ko adibideetan liburu jakin batetaz, mutil jakin batetaz eta aldizkari jakin batetaz ari gara nahitaez, eta ezinezkoa da (9)-ko adibideentzako aipatu dugun irakurketa esistentzialik lortzea:

(11) liburu-a erosi, mutil-a ikusi, aldizkari-a irakurri, etb.

Orain arte, euskal artikuluaren erabilera zein den azaldu dugu. Ikusita euskaraz D-dun DS-ak behar ditugula beste hizkuntza batzuk IB-ak erabiliko lituzketen lekutan, hurrengo atalean ingeleseko eta hizkuntza erromantzeetako IB-ek lortu ditzaketen irakurketak nola azaldu daitezkeen ikertu duten bi analisi garrantzitsuenak aurkeztuko ditugu (ikus 3. oinoharra). Behin hau eginda, hurrengo pausua euskarako datuak hoberen analisi hauetako zeinek azal ditzakeen begiratzea izango da.

2. IB-en irakurketak nola azaldu

2.1. Anbiguotasunaren analisia

Analisi honek IB-ak sistematikoki anbiguoak direla argudiatzen du: testuinguru batzutan espeziei egingo die erreferentzia; beste testuinguru batzutan berriz indefinitu ahul bezala portatuko dira –uztartua izan behar duen aldagai baten pareko izango direlarik– (ikus Wilkinson 1991, Diesing 1992, Gerstner & Krifka 1993).

Espezie denotazioa izango da IB-ek espezie-mailako predikatuekin konbinatzean erabiliko dena; (12a)-ko perpausak (12b)-ko forma logikoa izango du.

(12a) Fishes appeared 390 million years ago.
arrain.pl agertu.lehen milioi urte.pl dela
(12b) appear 390 million years ago ($fish_k$)

(13a) bezalako perpaus generikoetan berriz, IB-ak operatzaile generiko batek (Gn) uztartu behar dituen indefinitu ahul baten pare portatzen dira. Kuantifikaziorako hiruko egitura bat onartuz [Kuantifikatzailea [Murriztapena] [Besarkadura]]], (13a)-n irakurketa generikoa jasotzen duen *dogs* izena murriztapenean agertuko da, (13b)-n adierazten den bezala (ikus Lewis 1975, Kamp 1981, Heim 1982).

(13a) Dogs bark at the moon.
txakur.pl zaunka ilargiari
(13b) Gn x [dogs(x)] [bark at the moon(x)]

Irakurketa esistentziala ere IB-aren portaera indefinitutik etorriko da. Kasu honetan, IB-ak kuantifikatzailearen besarkaduran agertuko dira eta indefinituak sarrarazten duen aldagaia itsiera esistentzialak dakarren kuantifikatzaile esistentzialak uztartuko du, (14b)-n adierazten den bezala (ikus Heim 1982, Diesing 1992, Kratzer 1995).

(14a) Cats are playing with the ball.
katu.pl aux jolastu baloiarekin
(14b) $\exists$x [cats(x) & playing with the ball(x)]

2.2 Analisi Neocarlsondarra

Analisi honetan, IB-ak espeziea denotatuko adierazten duten izen bereziak izango dira beti (Carlson 1977, Chierchia 1998b, Dayal 2004). Masa izenak espezieak denotatzen dituzten *e* tipoko elementuak izango dira eta zuzenean konbina daitezke espezie mailako predikatuarekin.

(15a) Nitrogen is abundant in our universe.
nitrogeno da ugari gure unibertsoan
(15b) abundant in our universe (nitrogen)

IB pluralek aldiz, $\langle e, t\rangle$ mailako elementu semantiko bezala sortzen dira eta espezie mailako predikatuen argumentu bilakatzeko *e* tipo semantikora aldatzen dira *nominalizazio* deitu operazioaren bitartez (*nom*), (17) adibidean deskribatua duzuena (eta 16b-n '$^\cap$' bezala adierazia. Horrela, (16a)-ren forma logikoa (16b)-koa izango da.

(16a) Fishes appeared 390 million years ago.
(16b) appeared 390 million years ago ($^\cap$fishes)

(17) nom ($^\cap$): $\langle e, t\rangle \rightarrow e$: $\lambda P_{\langle e, t\rangle}\ \lambda s\ \iota x\ [P_s\ (x)]$

(18)-ko bezalako objektu-mailako testuinguruetan berriz, predikatuak ezin zaizkie espezieak denotatzen dituzten izenei aplikatu, eta espezieak denotatzen ez dituzten objektuei aplikatu behar zaizkie.

(18) Cats are playing with the ball.
katu.pl aux jolasten baloiarekin

Ondorioz, operazio gehiagoren beharra izango da tipo semantikoen bat ezetortzea konpontzeko. Konponketa hau espeziearen aleen gainean zenbatuko duen kuantifikatzaile esistentzial bat sartzean datza. Horrela, IB-ak aldagai libre bat sartuko duten indefinitu bihurtzen ditugu *pred* operazioaren bitartez (*nom*-en kontrako operazioa); operazio hau predikatuak objektu-mailako argumentu bat behar duen guztietan erabili ahalko da.[10] Aldi berean, tipo semantikoen aldaketa operazio honek kuantifikatzaile esistentzial bat sarrarazten du. Mekanismo orokor honi 'Espezietik Eratorritako Predikazioa' (Derived Kind Predication) (EEP) deitzen zaio.

(19) *Espezietik Eratorritako Predikazioa* (Chierchia 1998b: 364):
P objektuei aplikatzen bazaie eta *k*-k espezie bat denotatzen badu, orduan
$P(k) \Leftrightarrow \exists x\ [^{\cup}k(x) \wedge P(x)]$
'$\cup$', espezietik espezie horri dagozkion propietatera doan tipo-aldatzailea da (Pred).

(18') Cats are playing with the ball.
Playing with the ball ($^{\cap}$cats)
$\Leftrightarrow \exists x\ [^{\cup\cap}cats(x) \wedge$ playing with the ball$(x)]$ (EEP bidez)

Perpaus generikoetan, berriro ere tipo semantikoen bat ez etortze bat dago, predikatuak ez baititu espezieak onartzen eta IB-ak horixe denotatzen baitu. Ondorioz, berriro ere '$\cup$' aplikatu behar da aldagai libre bat duen indefinitu bat sortzeko, eta aldagai hau (20a)-ko perpausak sarrarazten duen Gn operatzaileak uztartuko du (ikus Chierchia 1995).

(20a) Dogs bark at the moon.
txakur.pl zaunka ilargiari
(20b) $\exists x$ [dogs(x) & bark at the moon(x)]

IB-en irakurketen berri ematen saiatu diren bi analisi nagusiak ikusita, hurrengo atalean euskarako datuetara bueltatuko gara. Lehenik eta behin, euskarako datuen berri emateko arazoak dituen analisi bat azalduko dut; eta azken partean, euskarako D-aren portaera teoria NC erabiliz azaldu daitekeela argudiatuko dugu, euskara, tipologikoki ingelesa eta frantsesaren tartean legokeen hizkuntza dela erakutsiz (irakurketa esistentzialei dagokienean behintzat).

3. Euskal D-aren irakurketak eta beraren tipologia azaltzen

Artikulu honek egingo duen proposamena zehazkiazaldu aurretik, Artiagoitia (2002)-ren analisia eta analisi honen arazo posible batzuk aurkeztu ditugu.

3.1. Euskal D-aren aurretiko analisi bat: Artigoitia 2002

[10] Pred: *e* (espeziea) $\rightarrow \langle e, t\rangle$: $\lambda k_{\langle e\rangle}\ \lambda x\ [x \leq k]$: propietateen korrelatuak diren entitateei (espeziei) aplikatu eta entitate horri dagozkion propietatea bueltatzen duen funtzio bat da.

Artiagoitia (2002)-ren analisia Longobardi (1994) analisian oinarritzen da. Longobardiren arabera argumentu posizioan agertzen diren IB-ak D buruaren posizioa bete gabe duten DS osoak izango dira. Ondorioz, (i) IB-ek, besterik ezean, interpretazio esistentziala jasoko dute eta (ii) IB-en D bete gabeak lexikoki gobernatua egon behar du. Beste modu batetara esateko, D buru bete gabe bat barne-argumentu posizioan baino ez da posible izango.

Artiagoitia, (2002)-ko lanean, proposamen hau euskarara ekartzen saiatzen da euskarako D-dun izenek lortzen dituzten irakurketak ingeleseko eta hizkuntza erromantzeetako IB-en berdinak direla ohartuta. Aurrekoa eta euskarazko izenek numero markarik ez dutela serioski hartuta, Artiagoitiak interpretazio esistentziala lortzen duten DS-ren egitura beste hizkuntzetako D-rik gabeko DS-en egituraren pareko dela ondorioztatzen du; D bete gabea izango da hain zuzen ere DS "definitua" esistentzialki interpretarazten duena. Ondorioz, euskal DS-ek, jasotzen duten irakurketaren araberako bi egitura izango dituzte. DS-ak irakurketa esistentziala jasotzen duenean, artikuluak numero zehaztapenak baino ez ditu beteko; horrela, [-a/-ak] artikuluak DS buruaren eta IS buruaren tarteko proiekzio funtzional bat beteko du, Artiagoitiak HSintagma deitzen duen Numero Sintagma proiekzio funtzional bat, (21a) eta (22a) adibideetan adierazten den bezala. Artiagoitiaren hitzetan: "some kind of Number-Phrase, i.e. the noun plus number inflection or the head that Longobardi (2000) simply calls 'H'" (Artiagoitia 2002: 84). DS-ak irakurketa espezifiko bat jasotzen duenean, [-a/-ak] artikulua D buru posizioan agertuko litzateke (21b) eta (22b)-n adierazten denez.

(21) Singularra (Artiagoitia 2002: 84):

(22) Plurala (Artiagoitia 2002: 84):

Analisi honek baditu arazo batzuk halere: sortu dezagun adibide bat masa izaeradun izen batekin, e.g. *garagardo-a* (ikus 9. oinoharra), objektu mailako predikatu baten objektu posizioan agertzen dena, (23)-n bezala. Egoera honetan, objektu posizioan agertzen den *garagardoa* DS-ak bi irakurketa lortu ditzaeke: definitua edo esistentziala (ingeleseko eta espainoleko adibideak eskaintzen ditut; ohar zaitezte lehenengo irakurketan D erabiltzen dela bi hizkuntza hauetan, irakurketa esistentzialen IB erabiltzen den bitartean).

(23) Maiak garagardo-a edan zuen.
⇒ Espezifikoa: 'Maia drank **the wine**' / 'Maia ha bebido **el vino**'
⇒ Esistentziala: 'Maia drank **wine**' / 'Maia ha bebido **vino**'

Irakurketa esistentzialean, Artiagoitiak [-a] ez du D bat bezala tratatzen, eta artikulua NumS-ren buruan kokatzen du numero markatzaile bezala funtzionaraziz, singularreko numero markatzaile bezala (cf. (21a)). Baina, hau al da benetan esan nahi duguna, hau da, benetan esan nahi al dugu masa terminoak singularrak direla? Argiro, galdera honi eman beharreko erantzuna ezezkoa da.

Artiagoitiaren aurkako ebidentzia gisa, ohar zaitezte testuinguru batzutan (testuinguru estereotipatuak deituetan; ikus 1. atala) euskarako izen zenbagarri singularrek irakurketa esistentziala lortu dezaketela. (24)-ko esaldiak ((9) adibidetik kopiatua) irakurketa espezifiko bat edo esistentzial bat jaso ditzake: [11]

(24) Julenek auto-a erosi zuen.
⇒ Espezifikoa: 'Julenek auto jakin bat erosi du'
⇒ Esistentziala: 'Julenek auto bat erosi du (ez dakigu zein)'

Ikusten dugunez, (24)-ko *autoa* DS-ak irakurketa esistentzial bat lortu dezake; baina irakurketa honetan ere bada alde argi bat (24) eta (23) adibideen artean. Bi DS objektuek irakurketa esistentziala jasotzen duten arren eta Artiagoitia jarraituz bi DS-etan agertzen de [-a] NumS-an kokatuko genukeen arren, (24) ez litzateke egia izango Julenek auto bat baino gehiago erosi dueneko testuinguru batean; beste modu batetara esateko, autoen kantitatea bat baino ezin liteke izan inolaz ere. Hau ez da horrela (23) adibidean, non ez zaigun axolik Maiak edan duen garagardo kantitatea. Gauzak horrela, Artiagoitiak erantzun beharreko galderak hauek lirateke: zer dela eta portatzen dira desberdin (23) eta (24)-ko DS singularrak (singularrak badira)? Eta nondik dator desberdintasun hau?

Hurrengo atalak bi galdera hauei erantzun bat ematen saiatuko dira, horretarako analisi sintaktiko eta semantiko berri eta berriztatzaile bat proposatzen delarik. Analisi honen arabera, masa terminoek –izen zenbagarriak ez bezala– ez dute inolako numero markarik. Are gehiago, euskarako D-a beti D-a izango dela argudiatuko dugu, baina tipo semantikoz aldatzeko garaian malgutasun haundia izango duela defendatuz. Malgutasun hau izango da D-ak bultza ditzakeen irakurketa desberdinen berri ematea baimenduko diguna.

3.2. Analisi berri baterantz

3.2.1. Euskal D-aren analisi sintaktikoa

[11] Espainolez IB singularrak erabiltzen dira (24)-n adierazia adierazteko.
(i) Juan ha comprado **casa**.
Juan aux erosi etxe
Bosque (1996)-k datu hauek azaltzeko predikatu konplexu bat sortuko duen aditzerako inkorporazio prozesu bat erabiltzen du (buruz buruko mugimendu baten bidez). Ikus Dobrovie-Sorin et al. (2006) antzeko azalpen berriago batetarako.
Rodriguez (2003)-k Bosque-ren analisia ontzat hartzen du eta euskarara aplikatzen saiatzen da. Desberdintasun bakarra zera litzateke; euskaraz inkorporazio prozesu hau Forma Logikoan gertatu beharko litzatekela D-ren presentziak buruz-buruzko mugimendua blokatuko bailuke mugimendua ageriko sintaxian emango balitz. Dena den, FL-ak blokatze hau nola ekidingo lukeen ez dezaket ikus, D FL-an ere presente izango baita –euskarako D-a espletibo bat dela onartzen ez badugu behintzat–.

Lan honek masa izaeradun izenek numero morfologiarik ez dutela defendatzen du. Aditzarekiko eta beste elementu batzuekiko singularrean komunztatzea izen zenbagarriekin parekatzen dituen propietate bat bada ere, masak –izen zenbagarriak ez bezala– neutroak dira numeroari dagokionean (ikus Delfitto and Schrotten 1991, Doetjes 1997, Dayal 2004, Krifka 2004, beste askoren artean). Aditzarekin singularrean komunztatzea besterik ezeango komunztadura izango da. Are gehiago, orainarte ikusitakoaren arabera, masa izenak izen zenbagarri pluralak bezala portatzen dira lortzen dituzten irakurketei dagokienean. Hau da, semantikoki, masa izenek antzekotasun gehiago dituzte izen zenbagarri pluralekin izen zenbagarri singularrekin baino –singularreko komunztadura gora behera (ikus Link 1983, Gillon 1992, Higginbotham 1994, Chierchia 1998a, 1998b, Bosveld-de Smet 1998, Pelletier & Schubert 2002).

Ondorioz, izen zenbagarriak morfologikoki singular edo plural bezala tratatuko ditugun bitartean masa terminoek ez dute numero morfologiarik izango. Desberdintasun hau azaltzeko [-a] artikulua eta numero markatzaile izango diren [-∅] (singularrentzako) eta [-k] (pluralentzako) posizio sintaktiko desberdinetan sortzen direla proposatuko dugu (onarpen estandarrek diotenaren aurka; ikus Etxeberria 2005). (25) adibidean adierazten denez, numero markatzaileak NumS posizioan sortzen direla asumituko dugu, [-a] artikulua beti D izango dela eta DS-aren buruan sortzen dela asumituko dugun bitartean. Izen zenbagarri singularren singulartasuna ageriko sintaxian markatzen ez den arren, [-∅] isileko numero markatzaile bat badutela asumitzen dugu (ikus Azkarate & Altuna 2001: 2. kapitulua, eta bertako erreferentziak);[12] hauxe izango da masa terminoetatik bereziko dituena hain zuzen ere.

(25)



Ohar zaitezte (25)-ko egiturak ez digula osagarrien azken ordena zuzenik ematen. Horretarako, [-k] plural markatzailea (eta [-∅] singularrekoa) atzizkiak izango direla onartuko dugu. Ondorioz kategoriari eta fonologiari dagokionean, beste elementu baten beharra izango dute atzizki hauek,[13] eta elementu hau artikulua izango da.[14] Beraz, numero markatzaileen artikuluaren ondorengo posiziorako mugimendua mugimendu morfologiko bat izango da (ikus Etxeberria 2005, 2007).

---

[12] Hauxe da aditz-laguntzaileen kasuan gertatzen dena. Plurala atzizki bidez markatzen den bitartean, singularrak ez du inolako markarik, ikus Hualde (2003).

Singular		Plural	
doa	'it/she/he is going'	*doa-**z***	'they are going'
dakigu	'we know it'	*daki-**zki**-gu*	'we know them'
nau	'it/she/he has me'	*ga-**it**-u*	'it/she/he has us'

[13] Klitikoak, atzizkiak ez bezala, fonologikoki baino ez dute beste elementu baten beharra, cf. Zwicky (1985).

[14] Menpeko ezaugarri morfosintaktikoak hizkuntza askotan aurkitu ditzakegun gauzak dira; e.g. Amharic hizkuntzan, Kasu morfologiak artikuluaren presentziaren beharra du (Anderson 1985).

Masa terminoak berriz, numeroari dagokionean neutralak izanik, ez dute NumS-aren beharrik izango ondorengo egiturak erakusten duen bezala.

(26)



Proposamen hau aurreko atalean egindako galderak erantzuteko gai da: (23) eta (24) adibideen arteko desberdintasuna Numeroak jokatzen duen errolaren ondorio izango da; singularra denean, interpretazioa singularra baino ez daiteke izan eta hauxe da (24) adibideak erakusten duena non Julenek auto bakarra erosi behar izan duen esaldia egia izan behar bada. Aldiz, masa izenekin, euskarako D-ak ez du inolako numero zehaztapenik ezartzen (masa) izenaren gainean.

Analisi hau onartzeak emaitza positibo batzuk dakartza: (25-26) egiturek izen zenbagarri eta masa izenak desberdintzea ahalbidetzen du, analisi honetan masa terminoak neutralak baitira numeroari dagokionean (eta beraz, ez singularrak); honela gainera, Artiagoitiaren analisiak zuen arazoaz arduratu beharrik ez dugu. Ohar zaitezte baita ere, Artiagoitia (2002)-k interpretazio esistentziala jasotzen duen [-ak] plurala NumS-an kokatzen duela (ikus (22a)). Pluraltasun honek (27)-ko *garagardo* bezalako masa izen baten masa izaera ezabatzen du ((27)-n nahita nahi ez garagardo edalontzi/mota desberdinez ari gara). Gure analisiak ere ez du inolako arazorik datu hauen berri emateko, izan ere, non [-k] plural markatzailea NumS-an agertuko da *garagardo* izenaren masa izaera behar bezala ezabatuz.

(27) Maiak garagardo-a**k** edan zituen.

Artiagoitia jarraituz, masa terminoen irakurketa esistentzialerako [-a] NumS-an agertzen dela onartuko bagenu, honek (23)-ko *garagardo-a* izenaren masa izaera ezeztatu beharko luke, baina ez da horrelakorik gertatzen. Arrazoi nabariengatik, azken datu hauek denak arazoak dira Artiagoitiaren analisiarentzat; gure analisian aldiz, [-a] D-ak ez du masa izenaren numero zehaztapenik ematen eta aipatu berri ditugun arazoak agertu ere ez litzaizkiguke egingo.

3.2.2. Euskal D-aren analisi semantikoa

Atal honetan analisi NC-a, non irakurketa esistentziala lortzeko bidean beharrezkoa den aurretik espezie irakurketa lortzea (ikus 2.2. atala), euskarako datuen berri emateko erabili daitekeela erakusten saiatuko gara. Lan honek proposatzen duen analisiaren abantailetako bat kasu guzti hauetan [-a] artikulua D bezala tratatzen dela. Beste modu batetara esanda, beraren irakurketak gora behera euskarako D-ari analisi bateratu bat ematen diogu.

Gure analisiaren arabera euskarako D-a irakurketa erreferentziala eta espezie irakurketa bultzatzeko gai da (ikus e.g. Kleiber 1990, Zamparelli 2002a, Dobrovie-Sorin, et al. 2006 hizkuntza erromantzeen analisi baterako). Gauzak honela, euskal D-ak $\langle e, t\rangle$ tipo semantikoa duen elementu bat hartu eta *e* tipo semantikoko elementu bat bueltatuko du beti; *iota* tipo-aldatzailearen papera izango du irakurketa erreferentziala behar denean, (28)-ko adibidean bezala.

(28a) Neskak berandu etorri ziren. (=3b)
(28b) iota (ι): $\langle e, t\rangle \rightarrow e$: $\lambda P_{\langle e, t\rangle}\ \iota x\ [P(x)]$

Bestalde, *nom* tipo-aldatzailearen papera beteko du (*iota*-ren bertsio intentsionala) espezie irakurketa behar denean, hau da, DS-a espezie-mailako predikatu batekin konbinatzen denean, (29)-n bezala.

(29a) Dinosauru-ak aspaldi desagertu ziren. (=7a)
(29b) nom ($^{\cap}$): $\langle e, t\rangle \rightarrow e$: $\lambda P_{\langle e, t\rangle}\ \lambda s\ \iota x\ [P_s(x)]$

Teoria NC zuzentzat hartuta, interpretazio esistentziala lortzeko bidean DS definituak beharrezkoa izan beharko du espezie irakurketa lortzea, h.d., irakurketa esistentzialerantzako bidean espezie denotazioa nahitaezko pauso bat izango da. Horrela, eta aurretik ikusi dugun bezala, predikatua espezieak denotatzen dituzten izenei aplikatu ezin zaienean, EEP (ikus (19)) beharrezkotzat hartzen da tipo batera-ezintasuna konpontzeko.

Hemen garatzen dugun hipotesiaren arabera, EEP-ak hizkuntza desberdinetan irakurketa esistentziala (besarkadura estuarekin; ikus 15. oinoharra) lortzen duten adierazpide nominalen eraiketa nola deribatu daitekeen erakusten digu; eta euskara tipologikoki ingelesaren eta frantsesaren tartean kokatzen dela erakutsi ahalko dugu: euskaraz eta frantsesez EEP-aren deribazioaren zati batzuk ageriko sintaxian egingo diren bitartean (beste batzuk ezkutuan ikusiko dugunez), ingelesez EEP-aren deribazio osoa ezkutuan egingo da. Frantseseko *des* (de les) / *du* (de le) eta euskarako esistentzialki interpretatutako [-a(k)] espezie bat denotatzen duen definitu baten gainean eratuak daudela izango da egin beharreko asuntzio gehigarri bat (ikus (7) adibidea).

Horrela, ingelesez, eta aipatu berri dugun bezala, (30) adibideko *books* izenaren deribazioa osoa ezkutuan emango da (ikus 2.2 atala). Lehenengo, *nom* tipo-aldatzaileak espeziea denotatzen duen *e* tipoko indibido bat sortuko du, gero *pred* tipo-aldatzaileak $\langle e, t\rangle$ predikatu tipoko elementu bat emango digu bueltan; azkenik kuantifikatzaile esistentzialak espeziearen aleen gainean zenbatuko du.

(30) Ane has seen [ships].
Ane aux ikusi txalupa.pl

Interpretazio esistentziala:
read (a, $^{\cap}$ships) $\Leftrightarrow \exists x\ [^{\cup\cap}\text{ship}(x) \wedge \text{see}(x)]$ (via DKP)

Frantseseko *des/du* determinatzailea preposizio partitiboaz gehi D-az osatuak daudela onartuz; frantsesez, (31)-ko *des bateaux* izenaren deribazioaren parte bat agerikoa izango da: *nom* eta *pred* ageriko sintaxian burutuko dira *les* eta *de* elementuen bitartez; ezkutuan egingo den deribazioaren partea irakurketa esistentziala emango duen kuantifikatzaile esistentzialaren sarrera izango da.

(31) Ane a vu [des bateaux].
Ane aux ikusi -etatik txalupa.pl

Interpretazio esistentziala:
lire (a, les bateaux$_k$) $\Leftrightarrow \exists x$[de les bateaux$_k$(x) $\wedge$ voir(x)] (via DKP)

Azkenik, euskaraz, (32)-ko *itsasontziak* izenaren deribazioaren zati bat ageriko sintaxian egingo da baina ezkutuan ere utziko dira deribazioaren zati batzuk. Lehenengo, D-ak *e* tipoko espezie indibiduo bat sortzen du. Nahiz eta euskaraz agerian D-a baino ikusten ez dugun, ⟨e, t⟩ tipoko predikatu bat bueltatuko digun posposizio partitiboaren ezkutuko bertsio bat (frantseseko *de*-ren parekoa) dugula asumitzen dugu. Ezkutuko posposizio honen lana EEP-aren erdibidean geratzen da, ez baitigu kuantifikatzaile esistentzialik ematen. Kuantifikatzaile esistentzial hau izango da hain zuzen ere EEP-ak ematen diguna eta espeziaren aleen gaineko zenbaketa egitea ahalbideratuko diguna perpaus episodikoetan.

(32) Anek [itsasontzi-ak] ikusi zituen.

Interpretazio esistentziala:
ikusi (a, itsasontziak_k) ⇔ $\exists x[\text{itsasontziak}_k(x) \wedge \text{ikusi}(x)]$ (via DKP)

Interesgarria da momentu honetan frantseseko *des/du* eta euskarako esistentzialki interpretaturiko D-aren portaerak erkatzea. Hau eginda, segituan ohartzen gara bi elementu hauen arteko desberdintasuna zera dela, euskarako D-ak lortu ditzakeen irakurketa erreferentzial eta espezie irakurketa ezin ditzakeela frantseseko determinatzaile partitiboak lortu. Irakurketa esistentzialean berriz, [-a(k)] eta *des/du* (i) ezin daitezke erabili perpaus generikoen objektu moduan (33-34); (ii) onargarriak dira egoera-mailako predikatuen objektu bezala (35-36); (iii) onargarriak dira baita ere aditzlagun atelikoekin konbinatzean (37-38). (Beheko adibideetan agertuko diren frantseseko adibide guztiak Bosveld-de Smet (1997)-tik hartuak dira.)

(33a) *Max adores des sucreries.
Max maite part.D gozo.pl
(33b) *Cet enfant déteste du lait.
hau ume gorroto part.D esne

(34a) Amaiak goxoki-ak maite ditut.
* **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio generikoa
(34b) Ume honek esne-a gorroto du.
* **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio generikoa

(35a) J'ai rencontré des amis ce matin.
nik topatu part.D lagun.pl hau goiz
(35b) Elle a goûte de la bière.
berak aux edan part D garagardo

(36a) Italiar lagun-ak topatu ditut gaur goizean.
* **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio definitua
(36b) Anek garagardo-a edan du.
* **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio definitua

(37a) Marie a cueilli des fraises pendant des heures.

Marie aux bildu part.-D marrubi.pl ordubetez
(37b) *Marie a cueilli des fraises en une heure.
Marie aux bildu part.-D marrubi.pl ordubete batean

(38a) Elenek marrubi-ak jaso ditu ordubetez.
√ **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio definitua
(38b) Elenek marrubi-ak jaso ditu ordubete batean.
* **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio definitua

Eman dezagun orain atal honetan aurkezturiko analisiaren aldeko ebidentzia gehiago. (39)-ko esaldietan, DS definituak anbiguoak dira irakurketa definitu baten eta esistentzial baten artean.

(39a) Kepak satorr-ak hil ditu.
(39b) Idoiak oilasko-a jan du.
(39c) Angelek zurbil-zurbil dago mamu-ak ikusi dituelako

Gogoan baduzue, analisi NC-k aurreko adibideetako irakurketa esistentzialerako bidean espezie irakurketa nahitaezkoa dela asumitzen du. Honen iragarpena zera da: espezie irakurketa blokatzen den bakoitzean, irakurketa esistentziala ez da posible izango. Jakina da espezie denotazioek badutela osagarri intentsional bat espeziea izen horren intentsioarekin erlazionatzea ahalbidetzen duena; osagarri intentsional hau blokatu daiteke (40) adibidean bezala designatzaile hertsi baten edo definitu posesibo baten bidez (ikus Chierchia 1998b).

(40a) Kepak [nere aitaren baratzako satorr-ak] hil ditu.
* **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio definitua
(40b) Idoiak [bere amak azokan erositako oilasko-a] jan du.
* **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio definitua
(40c) Angel zurbil-zurbil dago [kanposantuan dauden mamu-ak ikusi dituelako].
* **Interpretazio esistentziala**
√ Interpretazio definitua

(40a-c) adibideetako adierazpen definituak kontestualki mugaturiko sator, oilasko eta mamu multzo bakar bati egin diezaiokete erreferentzia; hau da, DS definitu hauek erreferentzialki bakarrik interpreta daitezke, eta irakurketa esistentziala erabat ezinezkoa da. Ez hori bakarrik, (40)-ko DS-ak espezie irakurketarik lortu ezin dezaketenez, espezie-mailako predikatuekin konbinatzean emaitza ez-gramatikalak bultzatuko dituztela izango da iragarpena. Iragarpena erabat betetzen da.

(41a) # [Bizilagunaren etxeko sagu-ak] ohikoak dira hemen.
(41b) # [Amak azokan erositako ardo-a] zabalduta dago.

Espezie irakurketa lortzeko ezintasun hau analisi NC-ren aldeko eta Anbiguotasunaren analisiaren kontrako ebidentzia argia da. Izan ere, Anbiguotasunaren analisiaren arabera, espezie irakurketa blokatzeak ez luke eraginik izan behar irakurketa

esistentzialarengan, baina argiro ikusi ahal izan dugunez (39-41) adibideetan, eragina garbia da.[15] Hemendik, irakurketa esistentziala espezie irakurketatik deribatzen dela eta analisi NC-k hizkuntzaz-hizkuntzako datuak azaltzeko gaitasuna baduela ondorioztatzen da. Euskararen gainean egin dezakegun orokortzapena hauxe da: euskarako DS definituek irakurketa esistentziala lortuko badute, aurretik espezie-mailako irakurketa lortzeko gaitasuna izan beharko dute.

4. Ondorioak

(i) Euskarako [-a] determinatzaile definitu bat denez DS-aren buruan sortuko da (beste hizkuntzetako D-arentzat asumitzen den bezala). Ez hori bakarrik, [-a] testuinguru guztietan izango da D (*pace* Artiagoitia 2002), baina tipo-semantikoz aldatzeko gaitasun haundia izango du; propietate honek beraren irakurketa desberdinak azaltzeko aukera ematen digularik.

(ii) Masa terminoak numeroari dagokionean neutralak izango dira eta numero morfologiarik izango ez dutenez, ez dute NumS-aren beharrik izango (Delfitto & Schroten 1991, Doetjes 1997, Dayal 2004, Krifka 2004). Izen zenbagarriak berriz singularrak ala pluralak izango dira.

(iii) Euskarako objektu posizioko DS definituen irakurketa esistentziala espezie irakurketaren baitakoa izango da, hau analisi NC-ren aldeko ebidentziatzat hartu behar delarik (Chierchia 1998b, Dayal 2004, Zamparelli 2002a).

(iv) Euskara tipologikoki ingelesa eta frantsesaren tartean dago; ingelesak IB-ak erabiltzen ditu irakurketa esistentzialak lortzeko; frantsesak D eta *de* preposizio partitiboa erabiliko ditu esanahi berdina adierazteko; euskaraz, D agerian izango dugu, ez ordea posposizio partitiboa.

Erreferentziak

Anderson, S. 1985. 'Inflectional morphology', *in* T. Shopen et al. (eds), *Language Typology and Syntactic Description. Volume 3*, 150–201.

Artiagoitia, X. 1997. 'DP predicates in Basque', *in* A. Taff (ed), *University of Washington Working Papers on Linguistics* 15, 161–198.

Artiagoitia, X. 2002. 'The functional structure of Basque noun phrases', *in* X. Artiagoitia et al. (eds), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, Vitoria-Gasteiz: ASJU (EHU-UPV), 73–90.

[15] Interpretazio esistentziala lortzen dutenean, euskarako DS definituak ez dira indefinitu soilak bezala portatzen eta besarkadura estua izango dute beti (indefinitu soilak ez bezala), ingeleseko IB-ek bezala.

(ia) # Nere aitak bi sator hil ditu ordubetez.

(ib) Nere aitak satorr-ak hil ditu ordubetez.

(ia) adibideko *bi sator* indefinituak besarkadura zabala baino ez dezake har *orbubetez* aditzlaguntzailearen gainetik [bi sator > adlg.]; lortzen dugun irakurketa bakarrean berdinak diren bi sator behin eta berriro hil ditu nere aitak, egoera nahiko berezi baten deskribapena beraz, hortik (gutxienez) pragmatikoki arraroa izatea. (ib) adibidea berriz erabat gramatikala eta zuzena da. Lortzen dugun irakurketan nere aitak sator desberdinak hil dituenekoa da eta DS definituak aditzlaguntzailearen azpiko besarkadura estua baino ez dezake har [adlg. > *satorrak*].

Artiagoitia, X. 2004. Izen-Sintagmaren birziklatzea: IS-tik izenaren inguruko funtzio-buruetara. In: *Euskal Gramatika XXI Mendearen Atarian: Arazo Zaharrak, Azterbide Berriak* (P. Albizu and B. Fernández eds.), pp. 13-38. Arabako Foru Aldundia-EHU, Vitoria-Gasteiz.

Aurrekoetxea, G. & X. Bidegain. 2004. Haur prodigioaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan. Bilbo: ASJUren gehigarriak, XLIX.

Azkarate, M. & P. Altuna. 2001. *Euskal morfologiaren historia*, Donostia: Elkarlanean.

Bosque, I. 1996a. *El sustantivo sin determinación*, Madrid: Visor Libros.

Bosque, I. 1996b. 'Por qué determinados sustantivos no son sustantivos determinados. Repaso y balance', *in* I. Bosque (ed), *El Sustantivo sin Determinación*, Madrid: Visor, 13–119.

Bosveld-de Smet, L. 1997, *On mass and plural quantification. The case of French des/du-NPs*, PhD diss., University of Groningen.

Carlson, G. 1977. *Reference to kinds in English*, PhD: UMass, Amherst.

Chierchia, G. 1995. 'Individual level predicates as inherent generics', *in* Carlson et al. (eds.), *The generic book*, Chicago: The University of Chicago Press, 176–223.

Chierchia, G. 1998a. 'Plurality of mass nouns and the notion of 'semantic parameter'', *in* S. Rothstein (ed), *Events and Grammar*, Dordrecht: Kluwer, 53–103.

Chierchia, G. 1998b. 'Reference to kinds across languages', *NLS* 6, 339–405.

Coyos, B. 1999. *Le parler basque souletin des Arbailles: Une approche de l'ergativité*. Paris: L'Harmattan.

Dayal, V. 2001. 'Bare nominals: Non-specific and contrastive readings under scrambling', *in* S. Karimi (ed), *Word Order and Scrambling*, Oxford: Blackwell.

Dayal, V. 2004. 'Number marking and (in)definiteness in kind terms', *L&P* 27, 393–450.

Delfitto, D. & J. Schroten. 1991. 'Bare plurals and the number affix in DP', *Probus* 3.2, 155–186.

Diesing, M. 1992. *Indefinites*, Cambridge, MA: MIT Press.

Dobrovie-Sorin, C. & B. Laca. 2003. 'Le Noms sans Déterminant dan les Langues Romanes', in Godard, D. (ed.), *Las Langues Romanes*. Paris : CNRS. 235-281.

Dobrovie-Sorin, C., T. Bleam & M.T. Espinal. 2006. 'Bare nouns, number and types of incorporation', *in* S. Vogeleer & L. Tasmowski (eds.), *Non-definiteness and plurality*, Amsterdam: John Benjamins, Linguistics Today, 51–79.

Doetjes, J. 1997. *Quantifiers and Selection. On the Distribution of Quantifying Expressions in French, Dutch and English*, The Hague: Holland Academic Graphics.

Eguren, L. 2005. 'Marcas de predicación en vasco', in B. Fernández and I. Laka, (eds.) *Andolin gogoan: Essays in Honour of Professor Eguzkitza*, pp. 233-250. EHU-UPV, Bilbo.

Eguren, L. 2006. 'Non-canonical uses of the article in Basque', in M. J. Hauser et al., (eds.), *Proceedings of the 32nd Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*. Berkeley Linguistics Society, Berkeley.

Espinal, T. & L. McNally. 2007. 'Bare singular nominals and incorporating verbs', in G. Kaiser and M. Leonetti (eds.) *Proceedings of the 3rd "ereus Workshop*. Universität Konstanz Arbeitspapier 122, 45-62.

Etxeberria, U. 2005. *Quantification and domain restriction in Basque*, PhD diss., University of the Basque Country (UPV-EHU) & HiTT.

Etxeberria, U. 2007. 'Existentially interpreted definites', *in* Puig-Waldmuüller, E. (eds.), *Proceedings of Sinn und Bedeutung 11*. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra. 229-243.

Etxeberria, U. 2008. 'On quantification in Basque and on how some languages restrict their quantificational domain overtly', in Matthewson, L. (ed.), *Quantification: A crosslinguistic perspective*. Emerald. 225-276.

Etxeberria, U. 2009. 'Contextually restricted quantification in Basque', in Giannakidou, A. & M. Rathert (eds.), *QP Structure, Nominalizations, and the Role of DP*, Oxford: Oxford University Press. Oxford Studies in Theoretical Linguistics Series.

Etxeberria, U. Prestatzen. *Nominal expressions in Basque*, Ms. IKER-CNRS.

Etxeberria, U. & A. Giannakidou. 2009. *Contextual domain restriction across languages: Definiteness, indefiniteness, and the structure of QP*. Ms. IKER-CNRS & University of Chicago.

Etxepare, R. 2003. 'Negation', in *A Grammar of Basque* (J. I. Hualde and J. Ortiz de Urbina, eds.), pp. 387-421. Mouton de Gruyter, Berlin.

Euskaltzaindia. 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo: Euskaltzaindia.

Gándara, A. & E. Santazilia. 2007. *Zehaztapen batzuk artikuluaren erabileraz Bourciez korpusean*. Eskuizkribua. UPV-EHU

Gerstner, C. & M. Krifka. 1993. 'Genericity', *in* J. Jacobs et al. (eds), *Handbuch der Syntax*, Berlin: Walter de Gruyter.

Gillon, B. 1992. 'Towards a common semantics for English count and mass nouns', *L&P* 15, 597–640.

Goenaga, P. 1980. *Gramatika Bideetan*, Donostia: Erein.

Goenaga, P. 1991. 'Izen Sintagmaren Egituraz', in Lakarra, J. (ed.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Donostia: EHU. 847-865.

Heim, I. 1982. *Semantics of definite and indefinite noun phrases*, PhD diss., MIT.

Heyd, S. 2003. *L'interprétation des Syntagmes Nominaux en "des" et "de" en Position Sujet et Objet. Généricité, Habitualité et Incorporation Sémantique*, Doctoral dissertation, Université Strasbourg II – Marc Bloch.

Higginbotham, J. 1994. 'Mass and count quantifiers', *L&P* 17, 447–479.

Hualde, J. I. 2003. 'Verbs', *in* J. I. Hualde and J. Ortiz de Urbina (eds), *A Grammar of Basque*, Berlin: Walter de Gruyter, 155–198.

Kamp, H. 1981. 'A theory of truth and semantic interpretation', in J. Groenendijk et al. (eds), *Formal Methods in the Study of Language*, Amsterdam: Mathematisch Centrum, 277–322.

Kleiber, G. 1990. *L'article LE générique. La généricité sur le mode massif*, Genève-Paris: Librairie Droz.

Kratzer, A. 1995. 'Stage level and individual level predicates', *in* G. Carlson and F. Pelletier (eds), *The Generic Book*, Chicago: University of Chicago Press, 125–175.

Krifka, M. 2004. 'Bare NPs: Kind-referring, indefinites, both, or neither?', *in* O. Bonami and P. Cabredo-Hofherr (eds), *Empirical Issues in Formal Syntax and Semantics 5; Selected Papers from CSSP 2003*.

Krifka, M. et al. 1995. 'Genericity: An introduction', *in* G. Carlson and F. Pelletier (eds), *The Generic Book*, Chicago: University of Chicago Press, 1–124.

Laca, B. 1996. 'Acerca de la Semántica de los "Plurales Escuetos" del Español', in Bosque, I. (ed.), *El Sustantivo sin Determinación. La Ausencia de Determinante en la Lengua Española*, Madrid: Visor Libros.

Laka, I. 1993. 'Unergatives that assign ergative, unaccusative that assign accusative', *in* J. Bobaljik and C. Phillips (eds), *Papers on Case and Agreement I*, Cambridge, MA: MIT Working Papers in Linguistics, 149–172.

Lewis, D. 1975. 'Adverbs of quantification', *in* E. Keenan (ed), *Formal Semantics of Natural Language*, Cambridge: Cambridge University Press.

Link, G. 1983. The Logical Analysis of Plurals and Mass Terms: A Lattice Theoretical Approach, *in* R. Bäuerle et al. (eds), *Meaning, Use, and Interpretation of Language*, Berlin: Walter de Gruyter, 302–323.

Longobardi, G. 1994. 'Reference and proper names: A theory of N-movement in syntax and logical form', *Linguistic Inquiry* 25.4: 609-665.

Longobardi, G. 2000. 'The Structure of DPs: Some Principles, Parameters, and Problems', in Collins, C. & M. Baltin (eds.), *The Handbook of Contemporary Syntactic Theory*, London: Blackwell Publishers. 562-601.

Manterola, J. 2006. '-a euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar', in *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask - R.L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz* (J. A. Lakarra and J. I. Hualde, eds.), pp. 651-676. Gipuzkoako Foru Aldundia-EHU, Donostia-Bilbo. (Supplements of ASJU).

Matushansky, O. 2005. 'Iraqui head seeks arms: Are bare nouns created equal?', Paper presented at the Bare Workshop, Utrecht.

McNally, L. 1995. 'Bare plurals in Spanish are Interpreted as Properties', in G. Morrill and R. Oehrle (eds.), *Formal Grammar*, Polytechnic University of Catalonia, Barcelona, 197-212.

Milsark, G. 1977. *Existential Sentences in English*. Garland Publishing Inc., New York.

Ortiz de Urbina, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Foris, Dordrecht.

Pelletier, F. J. & L. K. Schubert. 2002. Mass expressions, *in* D. Gabbay & F. Guenthner (eds), *Handbook of Philosophical Logic Vol. 10*, Dordrecht: Kluwer, 265–350.

de Rijk, R. P. G. 1972. *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*. PhD diss. MIT.

Rodriguez, S. 2003. *Euskal artikuluaren sintaxiaz*, manuscript, University of the Basque Country.

Roodenberg, J. 2004. 'French bare arguments are not extinct: The case of coordinated bare nouns', *Linguistic Inquiry* 35.2: 301-313.

Ticio, E., 1996, 'El Morfema -A en Vasco como Marca de Referencialidad', in *Interlingüística VI*. AJL.

Trask, L. 2003. 'The Noun Phrase: Nouns, Determiners, and Modifiers; Pronouns and Names', in Hualde, J. I. & J. Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*, Dordrecht: Kluwer. 92-134.

Wilkinson, K. 1991. *Studies in the semantics of generic noun phrases*, PhD diss., UMass.

Zabala, I. 1993. *Predikazioaren Teoriak Gramatika Sortzailean*. Ph.D. diss., University of the Basque Country (EHU-UPV).

Zabala, I. 2003. 'Nominal Predication: Copulative Sentences and Secondary Predication', in Hualde, J. I. & J. Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*, Dordrecht: Kluwer. 324-339.

Zamparelli, R. 2000. *Layers in the Determiner Phrase*, Doctoral dissertation, University of Rochester.

Zamparelli, R. 2002a. Definite and bare kind-denoting noun phrases, *in* C. Beyssade et al. (eds), *Romance Languages and Linguistic Theory 2000*, Amsterdam: John Benjamins, 305–342.

Zamparelli, R. 2002b. *Dei ex machina: A note on plural/mass indefinite determiners*, manuscript, Università di Bergamo.

Zwicky, A. 1985. Clitics and particles, *Language* 61:2, 283–305.